

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2 B22 Telefonorik gabe ezin bizi

Maila: A2

Helburua: Zerbaiteko zaletasun edo gogo bizia adierazteko.


Funtzioak: Norberak edo beste batek duen gogo bizia adieraztea.

Azken ekintza: Binaka, norberak dituen zaletasun handien zerrenda osatzea. Taldean, zerrenda hori abiapuntu, mendekotasun txikien berri eman.

Adierazpide linguistikoak:

- **Aditz aspektua:** ohiturazkoa: - T(Z)EN + IZAN
- **Gogo bizia adierazteko esapideak:** - REN MENDE egon/bizi ; - T(z)EKO amorratzen (irrikan) EGON ; Izena + GABE + EZIN + aditz laguntzailea
- **Lexikoa:** jan-edanak: kafea, hanburgesak, ogia, tabakoa, txokolatea, garagardoa...Egunerokoari loturiko aditzak: erre, bazkaldu, lo egin, irakurri, telebista ikusi....

1- IKUSI AURRETIK

 1.1 Zein dira zure ohitura sekretuak?


Bideoan agertuko den egoeraren testuinguruan kokatzeko, binaka, dituzten menpekotasun txikiez hitz egingo dute. Hizpide emateko, zaletasun desberdinen irudiak emango dizkiegu, norberak dituen zerrendak osatzeko. Jarduera egin aurretik komeni da egitura azaltzea ikasleei: IZENA / ADITZA (jokatu gabe) + GABE. Zerrenda osatzeko aukeran beste batzuk eskaini: argazki-kamara, liburuak, sare sozialak, oporrak, telefonoa... Behin zerrenda osatuta, hurrenkera egokian jar ditzatela, beraientzat duten garrantziaren arabera.

Ondoren, binaka zerrendak alderatuko dituzte, bakoitzak duen zaletasuna adieraziz.

Eredu hau emango diegu:

- *Baso bat esne edan gabe ezin dut lo egin.*
- ★ *Nik, ordea, ondo lo egiteko irakurri egiten dut.*

2- IKUSI BITARTEAN

 2.1 Zer gertatu da?

Bideoaren lehen atala entzun bitartean, ulermen orokorra ebaluatzeko, elkarrizketaren egoera ulertu duten ezagutuko dugu. Horretarako, hiru aukeren artean erantzun zuzena aukeratu beharko da. Hemen erantzun zuzena

Zer geratu da? *Amaiak eta Josuk erosketak atera dituzte mototik. Josuri asko gustatu zaio eta moto bat erosi ala ez pentsatzen ari da.*

 2.2 Dena ez da egia.

Ulermen xehea ebaluatzeko unea da. Bideo osoa ikusi ondoren, egiak eta gezurrak identifikatuko dituzte. Ondo ulertu ote duten ziurtatzeko, gezurrak zuzentzeko eskatu. Ondoren, erantzunak binaka alderatuko dituzte, eta beharko balitz bideoa berriro ikusiko dute baina transkripzio eta guzti. Hemen ariketaren erantzunak.

Josuren ustez motoa oso eroso da. **E**

Erosketak erraz eraman dituzte motoan. **E**

Amaiak ez dio Josuri motoa utzi nahi. **G**

Josu haserre dago Amaiarekin, erosketetan lagundu diolako. **G**

Josu telefonoa hartzeko amorratzen dago. **E**
 Josuk badaki telefonoarekin adikzioa duela. **G**

3- IKUSI ONDOREN

3.1 Hizkuntzari erreparatu.

Bideoan entzun duten elkarrizketako transkripzioaren zati bat emanda, zerbaiterako gogo bizia adierazteko egiturak identifikatuko dituzte. Honako egituratan alegia: -(e)N MENDE egon; - T(z)EKO amorratzen EGON; - T(z)EKO irrikan EGON.

Aizu, Amaia, ni ez nago telefonoaren mende, aditu?

Baina orain amorratzen zaude, etxera igo eta telefonoa hartzeko.

3.2 Zein da zure menpekotasun txiki hori?

Sekuentziaren aldi honetan lehen azaldu diren egiturak talde handian lantzeko aukera emango diegu ikasleei. Lehendabizi, sekuentziaren sarreran aktibatu dugun egitura birpasatuko dugu: IZENA / ADITZA (jokatu gabe) + GABE. Horretarako, eman menpekotasun txikiak irudikatzen dituzten zenbait argazki, eta bakoitzaren azpian argazki-oina idatziko dute. Adibide hau emango diegu:

NI kirola egin gabe ezin naiz bizi.

Ondoren, 1.1 ariketan osatua zuten zerrendako menpekotasunak berreskuratzeko eskatuko diegu. Zerrenda hori aurrean dutela, bakoitzak bere lagunaren bizio txiki horiek azalduko ditu taldekoen aurrean. Eredu hauetakoren bat erabiltzeko eskatuko diegu:

Ane, telebistarik gabe ezin da bizi: etxera iristen denean amorratzen egoten da pijama jantzi eta telebista ikusteko.

Jon, berriz, lantokira iritsi eta irrikan egoten da kafe bat hartzeko.

Luis play stationen menpe bizi da. Eta Nerea facebooken menpe.

TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Aizu, Amaia, arrazoi zenuen, oso ondo moldatu gara, erosketak erraz sartu dira motoan. Oso eroso da.

AMAIA.— Bai, baina orain ez zaitez adarretatik joan eta esadazu egia: ez zara gustura egon nirekin hizketan, lasai-lasai...— beste ezertan pentsatu gabe?

JOSU.— Bai, horregatik: zuk esan duzu erraz eramango genituela erosketak, eta hala izan da.

AMAIA.— Eta nik diot zu oso eskasa zarela disimulatzen, eta hala da.

JOSU.— Ez, benetan. Neuk ere pentsatzen hasi beharko dut, motoa erostea merezi duen ala ez. Kutxa, eserlekuaren azpia... gauza asko sartzen dira.

AMAIA.— Erosi nahi baduzu, erosi; baina badakizu: hau hemen dago, nahi duzunean hartzeko.

ETENA

AMAIA.— Hori bai: motoan zoazela, ezingo duzu telefonoz hitz egin!

JOSU.— Aizu, Amaia, ni ez nago telefonoaren mende, aditu?

AMAIA.— Ez, ez ez...

JOSU.— Ez ba! Eta bai, oso gustura egon naiz zurekin.

AMAIA.— Baina orain amorratzen zaude, etxera igo eta telefonoa hartzeko.

JOSU.— Ez da hainbesterako, neska!

AMAIA.— Ez, zera! Bueno, hartu bat eta goazen, e?

JOSU.— Ahoberoa!

AMAIA.— Hori bai, motoa hartzen baduzu gogoratu, e?...